



Eskola kirola

KIROL HEZITZAILEA

ELATZETA ESKOLA

Eskola kirola programa

Eskola-adineko haur guztiek kirola egiteko aukera eskaintzen du Eskola Kirola programak, haurren maila sozio-ekonomikoa, eskolatze lekua edo kirol eta gaitasun maila edozein izanik ere.

Kirola espazio gozagarri bezala ulertzea eta bizi ohitura osasuntsuak sustatzea da Eskola Kirola programaren xedea, euskaraz hitz egiten den bitartean, gainera.

ZERGATIK PARTE HARTU?



Kirol ezberdinak egiteko eta probatzeko aukera eskaintzen da.



Umearen adin eta ezaugarrietara egokitutako saioak dira.



Ondo pasatzeaz gainera, adiskidetasun eta bizikidetzaren baloreak ikasten dira.



Hezitzaile trebatu eta profesionalen zaintzapean aritzen dira haurrak.



Euskaraz aritzeko espazioa da Eskola Kirola.

Eskola kirola
KIROL HEZITZAILEA

Nola?

LEHEN HEZKUNTZAKO

1. ETA 2. MAILA:

JOLAS HEZI – KIROL HASTAPENA

Saio bakarra astean eta
asteburuetako topaketarik ez.

LEHEN HEZKUNTZAKO

3. MAILATIK 6. MAILARA:

KIROL ANIZTASUNA

Bi saio astean eta asteburuetako
topaketak aukeran.

ZEIN KIROL LANTZEN DIRA?

- | | | | |
|---|----------------|---|-----------------|
|  | Waterpolo |  | Raketa kirolak |
|  | Rubgy |  | Hockey |
|  | Igeriketa |  | Kirol egokitua |
|  | Atletismoa |  | Futbol |
|  | Orientazioa |  | Saskibaloia |
|  | Irristaketa |  | Eskubaloia |
|  | Erritmo-Dantza |  | Herri kirolak |
|  | Esku pilota |  | Natur jarduerak |

Eskola kirola

KIROL HEZITZAILEA



Programa berritua

PARTIDUTIK TOPAKETARA

Eskola-kirolaren printzipioetako bat kirol ugari egiteko aukera eskaintzea da, hurrek dauden kirol eta modalitate ezberdinak ezagutu ditzaten eta, ondoren, beren gustu eta ahalmenetara hobekien egokitzen dena aukera dezaten.

Irunen 2019tik Eskola Kirolean praktikatzen diren kirolak askotarikoak dira. 2019 arte hiru hilabete bakoitzean futbola, saskibaloia edo eskubaloia, asteburuetako derrigorrezko partiduekin, lantzen zen. Orain, aldiz, hamaika kirol ezberdinetan jokatzeko aukera eskaintzen da eta asteburuetan, partiduak beharrean, lehiatik urrun dauden kirol ezberdinen aukerazko topaketak daude.

Larunbatetako topaketak herriko klubean laguntzarekin antolatzen dira, eta herriko kirol instalazioak eta klubetako entrenatzaileak ezagutzeko aukera zabaltzen da horrela.

Eskola kirola

KIROL HEZITZAILEA



Berdintasuna

NESKAK ETA KIROLA

Eskola kirola egiten dutenen %23a neskek dira eta Irunen matrikulatutako nesken %16ak bakarrik egiten du eskola kirola; neska eta mutilen arteko arrakala beraz, handia da.

Neskak eskola kirolera erakartzea da Irungo Eskola Kirola Mahaiaren erronka eta horretarako taldekatze sistema aldatuko da 2023-2024 ikasturtean, neskei beraien talde propioak osatzeko aukera emanez, 3.mailatik 6. mailara.

Beste herrietako esperientzietatik ikasiz, neskei euren espazioa eskainiz neskek kirolera gerturatu nahi dira, konfiantzazko eremuak sortuz eta euren ahalduntzea sustatuz.



Eskola kirola

KIROL HEZITZAILEA

Elatzeta eskola Informazio praktikoa



PREZIOAK*:

KIROL HASTAPENA.

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. maila. 40 € urtean

* Hobaridun kuota: 10 € urtean.

KIROL ANIZTASUNA

Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara: 125,95€

* Hobaridun kuota. 31,5€ urtean



NON?

Eskolan bertan, klaseak bukatutakoan



SAIOEN ORDUTEGIA

1. ETA 2. MAILAKOAK

Astelehenak

16.00-17.00

BENJAMINAK (3. ETA 4.)

Astearte eta ostegunak

16.00-17.00

ALEBINAK 5. ETA 6.)

Asteazkenak 14.30-15.30

eta ostiralak 16.00-17.00



INFORMAZIO GEHIAGO

010 TELEFONOA

SAC

www.irun.org/irunkirol

Eskola kirola

KIROL HEZITZAILEA

PAREAN

Elkartea



Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN